

Erronkari buruzko fitxa

EUSTAT

Nola automatiza genezake kanpo-iturrien posta helbideen normalizazioa eta kodetzea, informazioa gure sisteman sartu ahal izateko?

Azpi-erronkak:

- Nola sar genezake lortutako emaitzen fidagarritasun-adierazle bat lortutako elementu bakoitzeko?
- Nola bistara genitzake aukera bat baino gehiago dituzten loturetarako probabilitate handiagoko aukerak, azken hautaketa eskuz egin ahal izateko?
- Nola erabil genezake informazio gehigarria, EUSTATen beste datu-base batzuk (biztanleriaren erregistro estatistikoa, jarduera ekonomikoen direktorioa...) kontsultatuta, identifikazioa eta fidagarritasun-adierazleak hobetzeko?

Testuingurua:

EUSTAT Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio erakunde autonomoa da eta Euskal administrazio publikoei, gizarte eragileei eta gizarteari zuzendutako informazio estatistiko ofiziala garatu, ekoiztu eta zabaldu egiten du; informazio hori, kalitatezkoa eta objektiboa izateaz gainera zientifikoki egiaztatzen da.

Jarduketa-esparru horretan, EUSTAT arduratzen da erakundearen beraren eta beste erakunde batzuen estatistika-eragiketei kodetze geografikoa emateaz, bai eta kode horietarako homogeneizazio bat ezartzeaz ere. Horretarako, gaur egun, kodetu gabeko posta helbideei buruzko informazioa duten kanpo-iturrietako datu eta fitxategiak jasotzen dira. Kanpo-iturri horietako informazioa txertatu ahal izateko, posta helbideak EUSTATEk sortutako kodetze estandarizatuen arabera kodetzeko tresna bat behar da.

Helburuak:

Gutxienez helburu hauetakoren bat betetzen duten irtenbideak bilatzen ditugu:

- Posta helbidearen zati bakoitza kodetzea, lurralde-unitate estatistiko bat (LUE) osatzen duten elementuen hierarkiaren ahalik eta maila baxuenera arte, aintzat hartuta posta helbidearen osagaiak (lurralde historikoa, udalerrria, entitatea/gunea, kalea, ataria, solairua, atea) ahalik eta fidagarritasun handienarekin.
- Datuen fidagarritasuna eskaintzea eta fidagarritasun hori adostutako baremoaren azpitik badago, ahalik eta aukera gehien duten izangaien azpimultzo bat bistaratzeko eta horietako bat hautatzeko aukera izatea.
- Irtenbide hori erabiltzeko aukera ematea EUSTATen arloetako proiektuetarako (hala nola direktorioak, lurraldea eta biztanleria).

Zeren bila gabilta?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Kodetzearen arrakastak eta fidagarritasunak altua izan behar dute.
- Irtenbideak gai izan behar du beste Oracle datu batzuekin lan egiteko, hor baitago informazioa.
- Ez du kontsumitu behar sistemaren baliabide ugari.
- Gure sisteman erraz txertatu behar da.
- Edozein erabiltzailek erabiltzeko modukoa izan behar du.

Prozesua eta data gakoak:

Erronkan parte hartzeko, eman izena esteka honetan [oraindik jaso gabe].

- Honako hau da proposamenaren erantzuna jasotzeko azken eguna: 2024/05/02ko 23:59.
- Finalerdira iritsi diren startupen berri 2024/05/10ean emango da.
- Startup finalisten berri 2024/05/24an emango da.
- Startup irabazlearen berri 2024/06/13an emango da.

Hautaketa-prozesuak 3 fase ditu:

1. **1. fasea:** finalerdikora iritsi direnek aurkezpena egingo diote sozietateari. Hiru startup finalista hautatuko dira. 2024ko maiatzaren 16tik 24ra izango da.
2. **2. fasea:** sozietateak elkarrizketa-txanda egingo du finalistekin. 2024ko maiatzaren 27an izango da.
3. **3. fasea:** sozietateak azken bilera egingo du finalistekin piloturako startup irabazlea hautatzeko. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, azelerazio-programan zehar.

Zer eskuratzen duzu?

Startup finalistak (3)

- Bi eguneko govtech **azelerazio-programa**. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, Bilbon, aurrez aurre.

Startup irabazlea

- **Irtenbidearen aurkezpena Demo Day de BIND GovTech 2024an**, Bilbon, aurrez aurre.
- **Ordaindutako pilotua**, gehienez 15.000 euro. Irtenbide irabazlea ezartzeko pilotua 2024ko uztailean hasiko da eta 5 hilabeteko iraupena izango du.